

ERDIKO KAIERA

LANDER GARRO

«Idazteak badauka zerikusia norberak daraman zauriarekin»

Orereta, 1975. “Euskal idazlea eta argazkilaria da”, dio bere curriculumak. Gaztaroko Pontika auzoan girotu zuen *Kontrarioa* lehen nobela. Oraingoan, atzera egin du denboran. Haur-nerabezaroa birsortu du *Gerra txikia* nobelan. Hendaia ederki ilustratu du. Ugarte familiaren istorioa du leitmotiva. Xabi haurra da protagonista, Lander haurraren alter egoa, naski.

| MIKEL ASURMENDI |
Argazkiak: Dani Blanco



LANDER GARROREN soslaiaren hainbait ertz: Sare sozialen erabiltzailea. Polemika eta kritiko zalea. Telebistako eta dokumentalen egilea. Euskal gatazkaren zirimolan hazitako ezker abertzalekoa. Gatazka honen traumaren pairatzailea. Argakilaria, kazetaria, idazlea...

Lander Garro, Hendaiaiko Orio auzoko frontoian. Bertan eman zuen haurtzaroko parte bat.

Nor da Lander Garro?

Nire bizitzaren hondarretara iritsi beharko dut galdera horri erantzuteko. Taxuzko zerbait esateko, alegia.

Polemiko izatearen ospe duzu, kritikoa.

Beti kostatu zait pentsatzen dudana ez esatea,

ERDIKO KAIERA ◦

baina azken urteetan dezente isiltzen naiz. Sinetsita nago askotan esaten duzun horrek ez duela onik ekartzen. Orain, norbait mindu badezaket, badaezpada ez dut ezer esaten. Egia da, beti izan naiz nork bere pentsamendua adieraztearen aldekoa, zorrotza izan naiz, baina ez polemika zale.

Kazetaria...

Hamasei urterekin hasi nintzen argazkilarari lanetan [Bartzelonan ikasi zuen], horretan ari nintzela hasi nintzen idazten. Zuk diozun kritiko izate horri zor diot kazetari izatea. Pasaian bazegoen *Brankan* izeneko aldizkaria. Egileek nik lan egiten nuen tabernan utzi ohi zuten. Egun batean ekartzen zuenari esan nion: “Zergatik egiten dituzue horren azal kaxkarrak? Zergatik ez dituzue baliatzen egungo teknikak zerbait txukun egiteko?”. Harrituta begiratu zidan. Bi aukera zeuzkan, ofenditu edo egin zuena egin: “Aizu, ba, egin ezazu zuk azala!”. Azala egiten hasi nintzen eta elkarrizketak ere. Lehen elkarrizketa Zinemaldiko Mikel Olaziregi zuzendariari egin nion.

Idazle izaeraz zer diozu? Eta idazleez oro har?

Idazleak irakurle onak gara hasieran, edo irakurle pasiodunak behintzat. Halako batean zirrikitu bat aurkitzen duzu eta: “Honetaz norbaitek idatzi beharko luke” pentsatzen duzu. Idazle denak hasten dira oraindik ikusi ez dutena idatzi nahian. Beno, ni horrela hasi nintzen behintzat. Ni Koldo Izagirre eta Eider Rodriguezen eskutik sartu nintzen literatura munduan. Gehien miresten nuen giza klasea idazlea zen. Euskal Herriko idazleen aurrean belaunikatzen nintzen, nolabait. Gero munduan sartu ahala dezepzio ikaragarria hartzen duzu, deskubritzen duzu idazleak zu bezalako pertsonak direla, zuk dituzun gabeziak, herrenak, ahuldadeak dituztela. Desamodio fase batera pasatzen zara. Literatura beste jarrera batekin ikusten duzu, ironia gehiagoz. Literaturaren mundua kanpotik begiratzen dut orain. Haurrekin bizikletaz dabilen aita naiz. Literatura... bost axola, nolabait.

2008an Jokin Muñozek *Bazka* aldizkarian idatzia: “Ezker abertzaleko jendeak ironiarekin duen arazoa islatu du Lander Garrok. Ez dute jolas ironikoa ulertzen, edo ez dute ulertu nahi”. Jokin Muñozek arrazoi zati bat bazeukan. Baina nik ironia baino, fribolitate esango nuke. Alegia, zuk bizitzan eduki dezakezu posizio eroso samarra fribolitatearen joko



Nobelagilea perurenatarrak bizi izan ziren etxeko atarian: “Haurtzaroa gure jatorria ere bada, nondik gatozen esplikatzan duen lurraldea. Aizpurdi kalea nire haurtzaroaren mugarri handienetako bat da”.

ulertzeko. Bizi-arnasak eman diezazuke tarte eroso bizitzeko, baina nik une hartan ez nuen tarte hori. Ni kartzelan bi urte luzez egon nintzen errurik gabe. Nik beti eramango dut bizitzaren bi urte kendu zidateneko mina. Egoera batek asko mintzen zaituenean, demokrazia deitzen duten horri barre egiten diozu. Zauria hain irekia duzunez, asko kostatzen zaizu bromaren jokoan sartzea, berak zioen bezala. Gaur ez nioke erantzungo.

Gerra Txikia nobela idatzi duzu orain. Nobelan kontatu nahi zenuena idatzi al duzu?

Ez guztiz. Liburu bat bukatzen dudanean, bi sentimendu ditut: lehena, sorpresarena. Idazten hastean amaiera inoiz ez dela iritsiko egoera bizi dut, luzea eta korapilatsua egiten zait. Beraz, sorpresa hartzen dut bukatu dudalako. Bigarrena, eta batez ere, idatzi dudanak eta idatzi nahi nuenak ia zerikusirik ez duten sentipena izaten dut. Liburuak badauzka bere apetak, buruan zerbait zenuen eta erabat diferente idatzi duzu. Gauza ilunak, gogorak eta deprimenteak idazten saiatu ohi naiz, baina gero, alde komikoa ateratzen zait. “Zure liburuarekin barre egin dut” esaten didate. “Bada, ez zen nire asmoa”, esaten diet. Nik badut umore puntu bat, txispa edo bromarako joera

hori. Pertsonon tristezia txistearen bidez ezkututzen duena. Bizitzaren iluna txistearen bidez babestu nahi hori. Groucho Marxen sindromea, nolabait esanda.

Hautzaroa da *Gerra Txikiaren* leitmotiva.

Hautzaroa oso interesgarria egiten zait idazteko orduan. Paradoxikoki, hautzarook ez du bakarrik gure jatorria esplikatzen, gu garen alegoria ere esplikatzen du. Zer gara ere helduak garenean? Denbora deitzen dugun errukirik gabeko makina horren txotxongiloak gara. Denborak aurrera garamatza, etengabe ari gara gure galbidea deskubritzen, eta horren aurrean, ez daukagu baliabide handirik. Haurrek baliabide horiek bilatzen dituzte. Horregatik interesatzen zait hautzaroa, nerabezaroa edo gaztaroaren kontakizuna.

Xabi da protagonista. Zer du Xabik Landerrengandik.

Xabi nire alter ego-a da, baina ez da beti ni, noski. Nik oposizio bidez ondo funtzionatzen dut idaztean; *Txirri* eta *Mirri* pailazoren oposizioan, adibidez. Baina ni ez naiz Xabi lotsatia, bizitzan ez naiz horrelakoa. Noski, badut alde lotsati hori, baina txikitatik ikasi nuen harroago agertu behar nuela, bestela neronek jasotzen nituen belarrondoko guztiak, hasteko txikia naizelako.

Hendaian kokatuta dago nobela, Aizpurdi karrika gogoan daramazu betiko.

Hautzaroa gure jatorria ere bada, nondik gatozen esplikatzen duen lurraldea. Aizpurdi kalea nire hautzaroren mugarri handienetako bat da. Bertan ezagutu nuen munduan ez zegoela justiziarik [9 urte zituen], munduan ezer ez dela dirudiena, ez dagoela ezer fidagarriarik. Sistema politikoarekiko lehen ikasgaia “ezer ez da dioten bezalakoa” izan zen. Heriotza ezagutu nuen bat-batean. Niretzat ordura arte heriotza abstraktua zen, ez zen

gauza konkretua, ez zuen eraginik nire bizitzan. “Niri hori ez zait gertatuko, gurasoei ez zait gertatuko” uste nuen...

Hala ere, “zuk jakingo zenuen zure mundu horretan herio hurbil zebilela. Erakunde armatu bat ari zela tartean...”, esan lezake norbaitek.

Erakunde bat zegoela banekien, baina heriotza gauza abstraktua zen. Telebistako informatiboak entzun genituen, pelikulak ikusi, jendea hitzen zela... baina ez nire bizitzan. Bederatzi urterekin galeraren sentimendua oso lausoa zen. *Peru* eta *Stein* hil zituztenean heriotzak zentzu osoa hartu zuen niretzat. Alegia, “pertsona horiek ez dira gehiago nire ondoan izango”, ulertu nuen.

Xabi Ugarte da. Nor dira ugartetarrak?

Ugartetarrak familia singularra da, eta era berean normala: guraso langileak, familia ugaria, gabezia ekonomiko handi samarrak dituen, eta engaiamendu politikoa hartzen duena. Gaur egungo mundutik begiratuta, orduko hainbat familiak hartzen zituzten erabakiak mundutik at zeudela ematen du, baina, ETA fenomeno sozial izugarria izan zen, jende asko “harrapatu” zuen. Erabakiak gutxi zeukan intimotik, erabaki kolektiboa zen, oso gauza normala.

Xabi Hendaiera etorri eta lasaitasun tristea ezagutu zuen.

Hegoaldean jende guztia zegoen nola edo hala mundu politikoan inplikatu. Iparraldera iristean ez genuen hori ikusi. Iheslari kolektibo handia eta anitza zegoen, non bazeuden obreiroak, burgesak, baserrikoak, portualdekoak, jatorrak, eskuzabalak, mizkinak, denetik. Liburuak aniztasun hori jaso du.

Gaur egun Hendaian bizi zara. Aldatu al da?

Batere ez. Orduetik hogeitaz urtera hona itzuli nintzen, eta izugarria izan zen deskubritzea

“Badut umore puntu bat, pertsonon tristezia txistearen bidez ezkututzen duena. Bizitzaren iluna txistearen bidez babestu nahi hori”

Inguru ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com



ezer ez zela aldatua. Hendaia marmotaren eguna da egunero. Haurtzaroan izugarri kostatu zitzaigun sinestea Euskal Herrian geundela. Gero joan ginen deskubritzen aztarren arkeologikoak: arrantzaleren batek edo zahar batek okindegian euskaraz egiten zuela, hainbat kalek euskal izenak zituztela, eta Euskal Jaiak, non herritarrak baserritarrez mozortzen ziren. Noski, bederatzi urterekin ez duzu jakintza politiko gutxienekoa esateko: herri bat izan ginen, kolonialismoa eta aduana-kezari ziren, frantsesek euskalduntasuna urratu zuten. Ezin diozu “pelikula” hori zure buruari kontatu. Izan ere, “hau Frantzia zen eta hemen ez zen ezer gertatzen...”. Baina, ohituraz, anaia-arrebok kalera ateratzen ginen, eta hizketan jarduten genuen luzaz. Uste dut horregatik naizela hain kalakaria. Haurtzaroan hitz egiten genuen bederen.

**Gatazka modu zuzenez bizi duena ez dela ego-
kia gatazkaz idazteko, esaten da.**

Gatazka bizi izana ez da desegokia idazteko. Aitzitik, ezin aproposagoa dela esango nuke. Finean, idazleak nondik idazten du? Bizitakotik eta ikusitakoetatik lehenik, irakurrietatik gero. Gatazka bizi izandakoek gatazkaz idatzi dituzten liburuak irakurri ditugu. Esaterako, Primo Levi eredu da, izugarria. Lehenbizi, Auschwitzeko infernua bizi eta kontatu zuelako, eta bigarrenik infernu horretako judutarren gabeziak kontatu zituelako. Judutar zenbaitek arazo izugarriak ekarri zizkioten Leviri. Nik liburu honetan ere, ETArekin inguruko kolektiboaren bizitza kontatzen dut, baina ahuldade eta akatsetan enfasia jarritz. Nobelak zentzu baldin badauka horretan dauka. Nobelak ezer laudatzeko bada, ez du merezi. Horre-

“Idazteak badauka zerikusia zauriarekin, zauritik datorren ego-arekin. Gizakiok besteen aurrean garena baino ederragoak agertzeko joera itsusi samar horrekin. Baina, zauria eta sorkuntza ezin dira bereizi”.

tarako omenaldiak daude. Nobelak alfonbra azpiko hautsak atera behar ditu. Nobelisten zeregina gertakarien azpian ezkutatzen zena lupa batez kontatzea da. Kasuon, familia horrek bizi izan zuena, pertsona hauskor horiek. Gertatutakoek jendearengan nola eragin duten agertzen duena.

“Gogoratu behar ditugun gauzak ahazten ditugu eta ahaztu behar ditugunak gogora etortzen zaizkigu” dio Cormac McCarthy idazleak.

Ezker abertzaleko izatearen estigma daramadala uste dut, eta gehiago epaitu izan zaidala ustezko ideologiarengatik idatzi dudanarengatik baino. Batzuek idazlea baino kaputxadun bat lapitzarekin ikusten dute nigan, ETArekin komando literarioa, nolabait esanda. Horrek asko amorratzen nau, beste edozeren gainetik idazlea sentitzen naizelako. McCarthyren zita horren arabera, idazleak ez du idazten bere ideologiatik, inor doktrinatzeko asmoz, mamuak dituelako idazten du, horiek daramate idaztera. Mamu horien plasmazio literarioa subjektiboa da, ez ideologikoa. Niri doktrinatzeko asmoz idazten diren liburuek nazka ematen didate, literaturaren aurkako atentatua iruditzen zaizkit.

“Bere deabruak menperatutako izakia da artista” dio William Faulknerrek. Lander Garrok deabruak menperatu al ditu?

Sorkuntzan hala ere, ez dut mamurik ikusten. Sorkuntzak baditu alde artistikoa eta terapeutikoa. Artistak modu kreatiboz sendatzen du bere burua. Bere ariman tiritita bat jartzen du nolabait, baina ez da konformatzen edozein tiritarekin. Idazteak badauka zerikusia zauriarekin, zauritik datorren ego-arekin. Gizakiok besteen aurrean garena baino ederragoak agertzeko joera itsusi samar horrekin. Baina, zauria eta sorkuntza ezin dira bereizi.

“Tristeia dun gerra, maitea, eta ez gudariatzat soilik” dio Eider Rodriguezek. Bixente Perurena zenaren Blanki emaztea heldu zait gogora.

Liburu honen ardatza hori da. Gerrako edo gatazka kontuak kontatzean, kontu estatistikoetan sartzen gara: hemen hainbat hildako, hor beste hainbat. Niri geratzen zaidana hau da: zer gertatu da bizirik iraun genuenekin? Blankirekin, nire amarekin, nire arreba eta anaiarekin? Hain gertutik gatazka ezagutu genuenok, ezin dugu hura ahaztu. Eta historialariek ezin dute hori egoki egin, bizirik geratu ginenok hitz egin behar dugu eta nobelagileek idatzi. ■

